BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3448

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 9koa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena, giza kapitala prestatzeko eta sustatzeko zenbait diru-laguntzetarako 2011ko deialdia argitaratzen duena (Ikertu Programa).

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 14ko Aginduak (2009ko urriaren 19ko EHAA; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko ekainaren 8ko Aginduak aldatua: 2011ko uztailaren 4ko EHAA, 126. zk.) giza kapitala prestatzeko eta sustatzeko laguntzen Ikertu Programa garatzen du, hainbat laguntza moten bidez Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren giza kapitalaren garapena eta prestakuntza sustatzeko jardueretara bideratutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren laguntzen esparruan. Laguntzen helburua da jakintza eta berritzeko ahalmena sustatzea, baita ikertzaileen masa kritikoa (teknologoak) handitzea ere.

Agindu horren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bidezko da bertan finkaturiko laguntzetarako deialdia egitea 2011ko ekitaldirako eta horretarako beharrezkoak diren arauak ematea.

Horrenbestez, agindu horren 9. artikuluan ezarritako eskumena erabilita, honako hau:

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Xedea.

1.- Ebazpen honen bitartez, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 14ko Aginduan aurreikusitako laguntzen artetik ebazpen honetan zehaztu diren moten eta modalitateen 2011ko ekitaldirako deialdia egiten da. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko ekainaren 8ko Aginduak aldatutako agindu horren bidez, hain zuzen, giza kapitala prestatzeko eta sustatzeko laguntza-programa ezartzen da (Ikertu Programa).

2.- Xede hori iristearren, gehienez jota, 600.000 euroko diru-kopurua erabiliko da laguntzetan 2011. urtean, eta 600.000 euro 2012. urtean, guztira 1.140.000 euro honako modalitate hauetan honela banatuta:

- I. eranskina: enpresen giza kapital zientifiko eta teknologikoa gaitzeko eta espezializatzeko laguntza-neurriak. 60.000 euro.

- II. eranskina: enpresen I+G+b babestea, teknologoak eta ikertzaileak kontratatuta.

Senior kategoriako langileak kontratatzea, I+G+b-ko proiektuetan parte har dezaten. 600.000 euro.

- III. eranskina: enpresen I+G+b babestea, teknologoak eta ikertzaileak kontratatuta.

Junior kategoriako langileak kontratatzea, I+G+b-ko proiektuetan parte har dezaten: 480.000 euro.

Bigarrena.- Eskabideak.

1.- Eskabideak eta gainerako agiri osagarriak Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Teknologia Zuzendaritzara bidali beharko dira, eta zuzendaritza horren helbidean (Donostia kalea 1, PK: 01010, Vitoria-Gasteiz), Sailaren Lurralde Bulegoetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan zehaztutako tokietan aurkeztuko dira.

2.- Eskaerak egiteko inprimaki normalizatuak Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde ordezkaritzetan jaso ahal izango dira, bai eta honako helbide elektroniko honetan ere: dti-ind@ej-gv.es.

3.- Eskabideak, eta, hala dagokionean, laguntzak berritzeko eskaerak, hilabeteko epean aukeztu behar dira, deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ebazpen hau.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 9a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.